

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 588/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Arabako Foru Aldundiaren zerbitzura diharduten langileen oinarriko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 0,25 igotzea 2019ko uztailaren 1etik aurrera**

Ordainsariei dagokienez hauexek dira funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea arautzen dutenak: Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua; Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea; haiek garatzen dituzten hainbat arau eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretua.

Arau horiekin bat etorritik, oinarriko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorren legeak zehazten ditu, destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez, sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onetsi ziren.

Aipatutako errege lege dekretuak adierazten du zioen azalpenean 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren luzapen automatikoak, Konstituzioaren 134.4 artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, berarekin ekarriko lukeela sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin igo izatea 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta honako hau ezartzen du 3.2 artikuluan:

“2019an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira 2018ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko 2,25 baino gehiago gehitu. Lansari horiek homogeneousatasunaren arabera kalkulatu dira erkaketaren bi aldietarako, hala langileei nola haien antzinateasunari dagokienez, eta ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko gizarte ekintzako gastuak, zeinak, oro har, ezin izango baitira gehitu 2019an, 2018koekin alderatuta. Horri dagokionez, irizten zaio gizarte ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, zeinen xedea baita zenbait premia asebetetzea, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.

Horrez gain, barne produktu gordinaren gehikuntza (BPDd) ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz prezio konstanteetan 2018an, 2019ko uztailaren 1etik aurrera soldata beste ehuneko 0,25 igoko litzateke.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, kontuan hartuko da Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapen estimazioa. Behin INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez onetsiko da, hala badagokio, igoera aplikatzea. Autonomia erkidegoei, herri autonomoei eta Udallerri eta Probintzien Espainiako Federazioari erabaki horren berri emango zaie.”

Otsailaren 26ko 125/2019 Erabakiaren bidez, ordainsariak ehuneko 2,25 igotzea onetsi zen, 2018ko ordainsariekin alderatuta.

Estatistikako Institutu Nazionalak, 2019ko ekainaren 5ean, egiaztatu du, ezen, Espainiako hiru hilean behingo kontabilitate nazionalaren eragiketaren emaitzen arabera, 2018ko BPGd-aren aldaketa tasa 2017koarekiko ehuneko 2,58 dela bolumenari gagozkiolarik. Zifra horrek eragiten du nahitaez aplikatu behar izatea ehuneko 0,25eko balio handitzearen aldagarria enplegatu publikoen ordainsarrietan; gainera, Ministroen Kontseiluak beste ehuneko 0,25eko gehikuntza onetsi du sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsarrietan, eta horrekin batera soldata eta hirurtekoei dagozkien ordainsari taulen zenbatekoak egokitu dira.

Ordainsarien eta luzapenari loturiko bestelako alderdien gaineko 2019ko ekitaldirako premiazko neurriei buruzko otsailaren 14ko 2/2019 Legearen 2.4 artikulua:

“baimena ematen zaio Gobernu Kontseiluari, Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsari-araubidea egokitzeko eta garatzeko, 2019ko ekitaldian sektore publikoko langileen gastuei dagokienez indarrean dauden oinarrizko baldintzen arabera.”

Gobernu Kontseiluaren 2019ko irailaren 10eko erabaki baten bidez, destino-osagarria 2019ko uztailaren 1etik aurrera eguneratzea zehazten da.

Honako hau xedatzen du Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontuen luzapena 2019ko ekitaldian aplikatzeko irizpideak ezartzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2018 Foru Dekretuak 7. artikuluan:

“Langileen kudeaketaren arloan, indarrean jarraituko dute, aplikagarriak diren heinean, Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak V. tituluan jasotako aurreikuspenak.”

Foru Arau horren 25.1 artikulua, halaber, hau xedatzen du:

“Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako eta foru fundazioetako langile funtzionarioen eta lan kontratudun langileen 2018rako ordainsari osoak gehitu egingo dira Foru Arau honetan ezarritakoarekin bat, 2017ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean. Ordainsari horiek homogeneotasunez kalkulatu dira eraketaren bi aldietarako, hala langileei nola haien antzinasunari dagokienez, eta, betiere, Estatuaren oinarrizko legedian ezarritako mugak gainditu gabe.”

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, Foru Aldundiko funtzionarioen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 0,25 igo behar dira 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Gauzatu da langileen ordezkarietako negoziazioa.

Aztertu dugu Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Arauan ezarritakoarekin bat etorritik emandako 664/2019 zenbakiko arauen kontrol ekonomikoaren txostena.

Bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta bat etorritik ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 324/2019 Foru Dekretua, Funtzio Publikoaren Arloko Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, eta funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren zerbitzura diharduten langileen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 0,25 igotzea 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Bigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, berraztertzeko errekurtsua ebazpena eman duen erakundearen aurrean, hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz (harekin lotuta dago Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duena).

Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**ADOLFO LANDER VERA**